

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

**Ziurgabetasuna ekonomiaren
etorkizunaren inguruan**

**Langile bakoitzak 5.880 euro galdu
ditu, 1980ko ekitaldiarekiko**

**Behin-behinekotasuna Europakoa
baino 8,5 puntu altuagoa da**

**Lanik gabe dagoen 3 lagunetik
1ek ez du langabezia-prestaziorik**

**Langabezia-tasa atzeraldi ekonomikoaren
hasierako tasaren bikoitza da**

Hego Euskal Herriko (*) lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA			
JARDUERA TASA (%)	74,6	2010.ko II HIRUHILEKOA	73,7
JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	70,9	2010.ko II HIRUHILEKOA	70,8
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.215.600	2010.ko II HIRUHILEKOA	1.202.700
SOLDATAKO BIZTANLERIA	1.025.100	2010.ko II HIRUHILEKOA	1.005.800
ALDI BATERAKO TASA (%)	21,7	2010.ko II HIRUHILEKOA	22,1
ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	13,2	2010.ko II HIRUHILEKOA	13
BIZTANLERIA LANGABETUA	143.900	2010.ko II HIRUHILEKOA	148.300
LANGABEZI TASA (%)	10,6	2010.ko II HIRUHILEKOA	11
LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	10,2	2010.ko II HIRUHILEKOA	8,8
GAZTEEN LANGABEZI TASA (%)	32	2010.ko II HIRUHILEKOA	31,5
GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	20,7	2010.ko II HIRUHILEKOA	19,6
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%)	11,3	2010.ko II HIRUHILEKOA	11,5
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	9,5	2010.ko II HIRUHILEKOA	8,7
SINATURIKO KONTRATUAK	677.621	2010.ko URTAR.-IRAILA	634.775
KONTRATATU MUGAGABEAK	47.916	2010.ko URTAR.-IRAILA	51.421
ENPLEGU ERREGULAZIOA			
ONARTURIKO FITXAK	1.702	2010.ko URTARRILA-UZTAILA	2.237
ERAGINDAKO LANGILEAK	35.334	2010.ko URTARRILA-UZTAILA	70.693
LAN ISTRIPUAK			
ISTRIPUAK GUZTIRA	25.021	2010.ko URTAR.-EKAINA	25.303
HILDAKO PERTSONAK	35	2010.ko URTAR.-EKAINA	46
ESKAINNTZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	2,2	2010.ko URTAR.-ABUZTUA	-24,5
BPGd EAEn (%ALD.)	0,5	2010.ko II HIRUHILEKOA	-4,3
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	1,5	2010.ko II HIRUHILEKOA	-3,2
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-0,1	2010.ko II HIRUHILEKOA	-4,4
BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,9	2010.ko II HIRUHILEKOA	-5,1
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (% ALD.)	1,8	2010.ko ABUZTUA	-0,8
URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	2	2010.ko ABUZTUA	0,6
<p>* Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>* Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2010/10/06ean eguneraturiko informazioarekin</p>			



EGOERAREN AZTERKETA

1. Badago esaterik ekonomia suspertzen ari dela?4
2. Noraino dira fidagarriak BPGd-ari buruzko datuak?5
3. Enpleguak ez du behar beste suspertze-zantzu agertzen5
4. Behin-behinekotasunak enkistaturik jarraitzen du6
5. 3 langabetutik 1, prestaziorik gabe6
6. Izugarritzko aldeak langabeziari buruzko informazio-iturrien artean7
7. Enpleguaren bilakaera negatiboa7
8. Enplegu Erregulazioko Espedienteak8
9. Prezioenigoera bizia8

HILEKO PUNTAKO GAIK

1. Errentaren banaketa9
2. Espainiako gobernuak elektrizitate enpresen alde eta biztanle kontsumitzaileen kaltetan ari da10

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala

Sarrera

Egoeraren azterketa honetan, besteak beste, enpleguak eta ekonomiak aurtengo lehen 6 hilabeteetan izan duten bilakaera aztertuko dugu, eta oraingo egoera ekonomiaren atzeraldiaren hasierakoarekin alderatuko dugu. Oraingoan, hileko puntako gaia errentaren banaketak 1980az gero izan duen eboluzioa da, bai eta horren zioz soldatapeko langile bakoitzak eta ekonomiaren bilakaerak jasaten dituzten ondorioak ere.

* Txosten hau 2010ko urriaren 6an eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

1. Badago esaterik ekonomia suspertzen ari dela?

Ekonomiaren bilakaera gaurkotasun handiko mintzagai bihurtu da. Irrikaz espero dugun suspertzearen inguruan, adierazpen eta artikulatu asko eta asko kaleratzen ari dira hedabideen bitartez. Baina, ba ote dago ekonomia benetan suspertzen ari dela esaterik?

Egia da 2009ko bigarren hiruhilekoaren ostean ekonomien Barne Produktu Gordinak (BPGd-ak) goranzko nolabaiteko joera-aldaketa erakutsi duela eta 2010eko bigarren hiruhilekoan lehenengo zifra positiboak erakutsi dituela.


Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) BPGd-ak, zehazki, urte arteko %0,5eko gehikuntza izan du 2010eko bigarren hiruhilekoan, 6 hiruhilekotan zehar beheraka aritu ostean, eta Nafarroakoa %1,5 hazi da, 5 hiruhilekotan negatiboan ibilita. Bai EAEko BPGd-ak, bai Nafarroakoak, Espainiako Estatukoak baino emaitza hobea izan dute, Estatuko BPGd-ak %0,1eko gutxipenarekin itxi baitu hiruhilekoa. 27-EBko BPGd-a izan da bigarren hiruhilekoan emaitza onena agertu duena: %1,9ko hazkunde, nahiz eta urripen handienak jasan (%5,1ekoak 2009ko ekitaldiaren hasierako bi hiruhilekoetan).

Hala eta guztiz ere, ekonomiak etorkizuneko nolako bilakaera izango duen, ikusteko dago oraindino. Berez, Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) urtea amaitu arteko hilabeteetarako aurkeztutako aurreikuspenak ez dira itxaropentsu egoteko modukoak. Izan ere, BPGd-ak hiruhileko batetik bestera oso gehikuntza txikiak izango dituela iragarri du erakunde horrek. Hortaz, ostera ere zabaldu da zalantza, berriro atzeraldira egingo ez ote dugun pentsarazteraino.

Gastu publikoa murrizteko politika orokorrak, logikarekin bat, areago moteldu du ekonomia, enplegu-maila baxuagoa ere eragiteaz gain. Egin behar zenaren guztiz kontrakoa egin da. Gastu publikoa indartu balitz, BPGd-aren urritzea leundu egingo zitekeen. Administrazioek gastu publikoa murriztearen alde emandako argudioa diru-sarrera


publikoetan krisi ekonomikoaren eraginez jazo den murrizketa izan da. Hori horrela bada ere, eta ekonomiaren bilakaerak diru-sarrera publikoetan izan dezakeen eragina alde batera utzirik, Hego Euskal Herriko presio fiskal txikia errenta handiei eta kapital-errentei zergak behin eta berriaz urritzeko hautu politikoaren ondorioa da, eta horrek, ezinbestez, nabarmenki baldintzatzen du gastu publikoaren maila.

BPGd-a merkatuko prezioetan, urte arteko hazkunde tasak (%). 27-EB, 2008-2010



Iturriak: Eurostat, Eustat,
Nafarroako Estatistika Institutua (NEI), INE

Ekonomiaren bilakaeraren norakoa BPGd-ari buruzko aurrerantzeko datuek argituko digute, baina datu soil horretatik harago joanez, beste hainbat konturen inguruan ere egin beharko genuke gogoeta, zenbateko hazkunde-maila, zenbateko enplegu-mailak eta nolako kalitatekoak, zer ekonomia mota, nolako errenta-banaketa, zer-nolako ingurumen-ondorioak eta abar nahi ditugun erabakitzeke, horiek guztiak inon ere ez baitira aipatzen, eztabaida publikoan. Dena den, kalitateko enplegurik sortzen ez bada, argi dago langileriaentzat krisialdia ez dela amaituko.




2. Noraino dira fidagarriak BPGd-ari buruzko datuak?

EAEko BPGd-aren bilakaerari buruzko datuen azterketak datuon fidagarritasunaren inguruko gogoeta eragin digu, bai eta datuok izan dezaketen erabilera publikoaren ingurukoa ere. Zehatz azaltzeko, EAEko azken hiruhilekoetarako, irailean berrikusitako eta argitaratutako datuak Eustatek lehenago emanikoak baino 0,5 edo 0,6 puntu txikiagoak dira zenbaitetan. Datuak berrikusten direnean hamarren bateko edo biko aldakuntza egotea ulergarria da, baina datua horrenbeste aldatzea ez da hain ulergarria.

Lehenagoko eta oraingo bi datu horien arteko diferentziaren berri eman denean, hedabideen arretak Eusko Jaurlaritzako aurreko gobernuaren garaian, hauteskundeen aurreko garaian bereziki, jazotako diferentziari erreparatu dio, eta orduko gobernuak, hauteskunde-emaitzetan pentsatuz, zegokiona baino BPGd handiagoa agertu zuela argudiatu dute. Hurrengo grafikoak erakusten duenez, ordea, dibergentzia, neurri handiagoan edo txikiagoan, aztertutako aldi osoan ageri da, hau da, 2008ko lehenengo hiruhilekotik 2010eko lehenengo hiruhilekora bitartean.

**BPGd-a merkatuko prezioetan, urte arteko hazkunde tasak (%).
Datu zaharrak eta berrikusiak.
EAE, 2008-2010**



Iturria: Eustat

3. Enpleguak ez du behar beste suspertze-zantzu agertzen

Jarraian, Hego Euskal Herriko enpleguak 2010eko bigarren hiruhilekoan erakutsi duen egoera aztertuko dugu, eta aurtengo lehen 6 hilabeteetan izandako bilakaera ere jorratuko dugu, bigarren hiruhileko horretako datua 2009ko laugarren hiruhilekokoarekin erkatuz.


Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestan (BAIn) 2010eko bigarren hiruhilekoari buruz argitaratutako datuek erakusten dutenaren arabera, Hego Euskal Herrian, 65 urte baino gutxiagoko biztanleetatik enplegua izan duten edo bilatzen jardun dutenak (jarduera-tasa, alegia) %74,6 izan dira; horrek 1,1 puntuko igoera adierazten du, 2009ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Gizonen jarduera-tasa %81,8koa izan da (1,8 puntu igota), eta emakumeena, berriz, %67,4koa (0,4 puntu hazi da seihilekoan). Bi generoen jarduera-tasen bilakaerek pixka bat zabalago egin dute bien arteko jautzia, dagoeneko 7,2 puntukoa baita.

Hego Euskal Herriko jarduera-tasa 3,5 puntu altuagoa izan da 27-EBko batez bestekoa baino (EBkoa %71,1koa izan zen 2010eko bigarren hiruhilekoan). Gizonen kasuan, diferentzia handiagoa izan da, horien jarduera-tasa Europakoa (%77,8) baino 4 puntu handiagoa izan da eta; emakumeen kasuan, 27-EBkoa (%64,6) baino 2,8 puntu handiagoa izan da.

Lanean dabilen biztanleria 1.215.600 lagunek osatzen dute, 2009aren amaieran baino 26.000 gehiagok, hain zuzen. Guztira, 673.750 gizon (enplegu osoaren %55,4) eta 541.850 emakume (%44,6) izan dira; beraz, gizonen enpleguak 18.350 laguneko hazkundera izan du, eta emakumeenak, 7.650ekoa.

Sektorez sektore aztertuta, hiruhilekoan lanean ibili diren biztanleen %1,8 (22.100 langile) lehen sektorean aritu da, %8 eraikuntzan (96.900), %23,1 industrian (281.100) eta %67,1 zerbitzuetan (815.500 langile).

Lanean dabilen biztanleria sektorez sektore (%) . HEH,2010eko II.HH



Iturria: BAI

Bilakaerari erreparaturik, kaltetuena lehen sektorea izan da, seihilekoan bere pisuaren %12,3 (3.100 lanpostu) galdu duelarik, eta hurrengoia, industria, %1,3 (3.800 lanpostu) urritu dena. Zerbitzuen sektoreak %3,6ko hazkundea izan du (28.400 enplegu gehiago), eta eraikuntzak, %4,9koa (4.500 lanpostu).

Lanpostu guztietatik 1.025.100tan, soldatapeko langileak aritu dira; horrek esan nahi du 36.100 lanpostuko gehikuntza izan dela, aurreko seihilekoarekin alderatuta. Soldatapeko enpleguaren %53,6an (549.350 lanpostutan) gizonezkoek jardun dute, eta %46,4an (475.750 lanpostutan), berriz, emakumezkoek.


4. Behin-behinekotasunak enkistaturik jarraitzen du

Behin-behinekotasun tasa %21,7koa izan da (seihilekoan 0,4 puntu jaitsirik): gizonena, %19koa (ia bere horretan eutsi duelarik) eta emakumeena %24,9koa (0,9 puntu jaitsi da), hain zuzen ere. Bestalde, 25 urtetik beherako gazteen behin-behinekotasun tasa %59,5ekoa izan da (2009ko laugarren hiruhilekoan baino 1,2 puntu baxuagoa) eta 25 eta 35 urte arteko pertsonena %34,2koa (3,8 puntu altuagoa).

Behin-behinekotasuna, urritu bada ere, 27-EBko batez bestekoa (%14) baino 7,7 puntu gorago dago. Emakumeen kasuan, aldea are handiagoa da, HEHko emakumeen behin-behinekotasun tasa 27-EBko batez bestekoa (%14,7) baino 10,2 puntu

altuagoa baita, gizonena Europakoa (%13,4) baino 5,6 puntu gorago dagoelarik.

Behin-behinekotasun tasak (%). HEH, 2010eko II. HH - 27-EB, 2010eko I. HH



Iturriak: Eustat, Eurostat

Beste alde batetik, behin-behinekotasunari buruz ari garelarik, INEMen datuen arabera, irailera arte sinatutako kontratuen %7,1 baino ez da mugagabea izan; horrek esan nahi du iazko abuztuaren aldean 1 puntuko murrizketa jazo dela.


Iraileko datua bakarka hartuta ikusten denez, hil horretan zehar sinatutako kontratu mugagabeak guztizkoaren %8,1 besterik ez dira izan, 2009ko irailean baino 0,6 puntu gutxiago, alegia. Portaera horrek berretsi egiten du lan-erreformaren porrota, beraren onarpena sustatu zutenek behin-behinekotasuna urriarazi egingo zuela argudiatu bazuten ere. Iraileko datuek guztiz kontrakoa uzten dute agerian.

5. 3 langabetutik 1, prestaziorik gabe

Langabeen estaldurak ere gabezia handiak erakusten ditu politika publikoetan, grafikoari kasu eginik; izan ere, INEMen zerrendetan dauden hiru lagunetik batek ez du inolako langabezia-prestaziorik kobratzen, eta beste %25ek, laguntzako (kotizazio gabeko) prestazio bat baino ez.



Langabezia-prestazioak jasotzen dituztenak eta jasotzen ez dituztenak (%). HEH, 2010eko Abuztua



Iturria: INEM

BAI inkestako informazioak erakusten duenez, 143.900 biztanle egon dira langabezian bigarren hiruhilekoan, aurreko denboran langabeen kopuruak 11.400eko gutxipena izan duelarik. Zehazki, gizonetako 5.600 langabe gutxiago (langabezian 74.600 daude) eta emakumetako 5.800 gutxiago (eta 69.300 langabezian) izan dira.

Hortaz, langabezia-tasa %10,6koa izan da (6 hilabete hauetan 0,9 puntu jaitsirik); gizonena %10ekoa (0,9 puntuko jaitsiera) eta emakumeena %11,3koa (2009ko laugarren hiruhilekoan baino 2 puntu txikiagoa). Bestalde, 25 urtetik beherako pertsonen langabezia-tasa %32koa izan da (2009ko laugarren hiruhilekoan baino 2 puntu beherago), eta 25 eta 34 urte bitartekoena, % 12,3koa (1,4 puntu baxuagoa).

HEHko langabezia-tasa orokorra Europakoa (bigarren hiruhilekoan, %9,6koa) baino puntu 1 handiagoa izan da, 1,8 puntu handiagoa emakumeen kasuan (%9,5ko tasa izan dute), eta gizonena 0,3 puntu altuagoa izan delarik (%9,7).


6. Izugarritzko aldeak langabeziari buruzko informazio-iturrien artean

Ikusi ahal dugunez, BAI langabezian dauden pertsonen buruz ematen duen kopurua INEMek emandakoa baino nabarmen txikiagoa da. Batak eta besteak langabeziaren inguruko datuak agertzeko erabiltzen dituzten denbora-tarteetatik elkarren gertueneko datua aztertzean, hauxe ageri

zaigu: BAIren arabera, 2010eko bigarren hiruhilekoan, 143.900 lagun zeuden langabezian; INEMek, aldiz, ekainean 167.282 langabe zeudela dio. Beraz, bi iturrien artean, 23.382 laguneko aldea dago, hots, %18ko dibergentzia. Are gehiago, batak eta besteak seihilekoan zehar agertutako bilakaerak ere nahiko ezberdinak dira: BAIren datuei kasu eginez gero, 2010eko lehenengo 6 hilabeteetan langabeen kopurua %7,3 urritu egin zen, INEMen informazioari jarraituz, ordea, %0,9 baino ez zen gutxitu.

INEMen informazioa erakunde horren zerrendetan hilez hil dauden langabeei buruzkoa da, eta BAIrena, berriz, hiru hilerik behin, aurrez ezarritako irizpide batzuetan oinarrituz egiten den inkestaren emaitza. Hala eta guztiz ere, datu zehatz horretan eta bilakaerarenean hain diferentzia handiak egoteak zalantzak eragiten ditu enpleguari buruzko informazio publikoaren fidagarritasunaren eta egokitasunaren inguruan.

Langabeak. INEM (2009ko abendua - 2010eko ekaina) eta BAI (2009ko IV. HH - 2010eko II. HH).



Iturriak: BAI, INEM

7. Enpleguaren bilakaera negatiboa

Enpleguak aurtengoaren hasierako 6 hilabeteetan izan duen bilakaera, BAIren arabera, ez da negatiboa izan, enplegua sortu (26.000 lanpostu), langabeen kopurua urritu (11.400 lagun gutxiago)

eta behin-behinekotasun tasa pixka bat (0,4 puntu) jaitsi omen da eta.

Hala ere, enpleguak krisiaren hasieratik, hau da, 2008ko bigarren hiruhilekotik, aztertuta, oraingo datuak ezin txarragoak direla egiaztatu ahal da. Zehazki, lanpostua duten pertsonak duela bi urte baino 73.100 gutxiago dira, eta langabezian daudenak, 67.500 gehiago. Izatez, langabezia-tasa (%10,6) duela 2 urtekoa (%5,6) baino 5 puntu handiagoa da, bikoitza ia. Alegia, ekonomiaren bilakaera orain dela bi urteko mailetara heldu bide delarik, enpleguarekin ez da gauza bera gertatu.

Horrez gain, INEMen informazioaren arabera, Hego Euskal Herrian, irailean, 171.923 langabe egon dira, hots, aurreko hilabetean baino 3.386 gehiago, ekainean baino ia 5.000 pertsona gehiago, eta iazko irailean baino 11.176 gehiago.

Datuok berretsi egiten dute gastu publikoaren murrizketak ekarri duen aurrekontu-doikuntzak lan-merkatuaren egoera txarragotu baino ez duela egin.

8. Enplegu Erregulazioko Espedienteak

Uztailera arte, Hego Euskal Herrian, enplegu-erregulazioko 1.702 espediente baimendu dira, hots, 2009ko epealdi berean onartutakoak (2.237) baino 535 gutxiago. Espedienteon ondorioak 35.334 langilek nozitu dituzte, alegia, 2009ko epealdi berean (zeinetan 70.693 izan baitziren) baino 35.359 gutxiagok. Langile horietatik, 32.707k (kaltetu guztien %94,5ek) behin-behineko etendura-neurriak jasan dituzte, 1.813 langilek (%4,7k) behin betiko irazpen-neurriak, eta 839ri (gutzizkoaren %0,8ri) lanaldia murriztu egin zaie.

Bai onartutako espedienteen kopurua, bai kaltetutako pertsonena, urritu egin dira, 2009aren hasierako 5 hilabeteekiko. Baina ez dugu ahaztu behar lan-merkatuko behin-behinekotasunak bidea ematen diela ugazabei, aldi baterako kontratuak berri nahi ez dituztenean, lanpostuok ia dohainik suntsitzeko, eta enplegu-suntsipen handia egin den garaietan erregulazioko

espedienteak icebergaren tontorra baino ez direla izan.


9. Prezioen igoera bizia

Espainiako Estatuan, abuztuan, prezioek urte arteko %1,8ko hazkundera erakusten zuten, 2009ko abuztukoekin erkaturik. Portzentaje horren arabera, estatuko prezioak 27-EBkoen batez bestekoak baino 2 hamarren gutxiago igo dira. Zalantza barik, uztailean indarrean hasi zen BEZ igoerak badu zerikusia bilakaera horrekin.


Grafikoan ikusi ahal denez, aurtengo ekitaldia iazkoaren oso bestelakoa izaten ari da. Iaz, garai hauetan, Kontsumorako Prezioen Indizeak zifra negatiboak agertzen zituen, eta urtea KPI negatiboarekin itxiko ote zelako kezka ere sortu zen.

Edonola ere, gogoan izan behar dugu, negozioazio kolektiboari begira, erreferentzia egokiena aurreko ekitaldiko benetako KPIa dela, Espainiako gobernuaren aurreikuspenen ordez, horiek sekula ere ez baitira betetzen.

KPIaren urte arteko gehikuntzak (%).
27-EB, Espainiako E., 2010.



Iturriak: INE, Eurostat



1

Errentaren banaketa

BPGd-a aztertzean, horren bilakaera soilari baino, berebiziko garrantziko beste hainbat faktoreri ere erreparatu beharra aipatu dugu. Klase-ikuspuntutik begiratuta, errentaren banaketak, hau da, guztion artean sortzen dugun aberastasuna banatzeko moduak, garrantzi berezia hartzen du.

Eustatek Hego Euskal Herrian 2009ko urtealdian sortutako aberastasunaren banaketaren berri eman du dagoeneko. Horixe aztertuko dugu atal honetan, bai eta banaketa horrek 1983az gero izan duen bilakaera ere. Alabaina, 1983ko hori eskura daukagun daturik zaharrena izateaz gain, aldagai horrek garrantzi handia hartzen du epe luzera aztertzean.

Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) (Nafarroako errentaren banaketa aztertzeko erabiliko dugun iturriak) ez du oraindik 2009ko urtealdirako datua argitaratu. Horregatik, Foru Erkidegoan jazotakoa informazio hori eguneratzen dutenean jorratuko dugu.


EAEri dagokionez, 2009an, ekonomian sortutako 100 eurotik 50 soldatapekoen eskuetara joan dira, eta 41,7, ustiapeneko soberakin gordinera, hots, enpresarien eta kapitalaren errentetara (gainerako 8,3ak zerga garbiei dagozkie).

Egoera hori azken 2 urteetan gertatutakoarekin alderatzean ikusten denez, bai ustiapeneko soberakin gordinak, bai soldatapekoen ordainsariak, pisu handiagoa hartu dute BPGd-an. Horren arrazoia 2 urtealdiotan zerga garbietan eragin den murrizketa nabarmena izan da (%15,3ko jaitsiera 2008an eta %12,8koa 2009an). BPGd-a hiru osagai horien batura da, hau da, soldatapekoen ordainsariak, ustiapeneko soberakin gordina eta zerga garbiak batzearen emaitza, eta horietako batean (zerga garbietan) jazotako jaitsiera handiak beste bien pisua (soldatapekoen ordainsariena eta ustiapeneko soberakin gordinarena, alegia) igoarazi egin du. Azken 2 ekitaldietan, BPGd-an duten pisua

handitu den arren, soldatapekoen ordainsariak %5,8ko gehikuntza nominala besterik ez zuten izan 2008an (igoerarik txikiena, 2002ko urtealdiaz gero), eta %4,2 urritu ziren 2009an.

Aldi batzuetan jazo diren gorabeherak alde batera utzita, hurrengo grafikoak beheranzko joera argia erakusten du, 1980ko urtealdiaz gero, soldatapekoen ordainsarietan, eta goranzko joera, aitzitik, ustiapeneko soberakin gordinean. Zehatz esateko, ustiapeneko soberakin gordina BPGd-aren 5,6 puntu hazi da 1980 eta 2009 artean, eta soldatapeko langileen ordainsariak, berriz, 7,1 puntu jaitsi dira (zerga garbiek 1,4 puntuko hazkundera izan dute). Horrek esan nahi du soldatapeko pertsonen ordainsariak 1980ko ekitaldian BPGd-an zuten pisuari eutsi baliote legozkiokenak baino 5.880 euro gehiago jasoko litzuzkeela soldatapeko bakoitzak.

Soldatapeko langileen ordainsariak eta ustiapeneko soberakin gordina (BPGd %). EAE, 1980-2009




Iturria: Eustat

Europako Komisioak lan errenten parte-hartzeari buruzko nazioarteko informazioa publikatzen du. Honen arabera, errentaren banaketa 27-EBkoa eta Estatu Batuetakoa baino bidegabekoagoa litzake Espainiar estatuan (ez dugu EAE alderaketa honetan sartuko Eustat informazio iturri ezberdina delako, eta datuak homogeneousak ez izatea gerta litekeelako). Zehazki, Estatu Batuetan, 2009 ekitaldian, 100 eurotik 59 izan dira soldatapekoen ordainketara zuzenduak, 58,4 27-EBn, eta 56,3

Espainiar estatuan, eta beraz, Espainiar estatuan jasotzen dute gutxien lan errentek.

1995 ekitalditik gertaturikoa aztertzen badugu, lan errenten parte-hartzea murriztu egin dela 3 kasuetan ikus dezakegu, 3,8 puntu Espainiar estatuan, 3,2 EEBBn, eta puntu 1 27-EBn. Era honetara, langileria errentzat bilakaerarik kaltegarriena Espainiar estatuan eman da.

Soldatapeko langileen ordainsariak (BPGd %). EEBB, EB-27, 1995-2009



Iturria: AMECO (Europako Komisioa)

Bilakaera horrek biztanle bakoitzari dakartzkion ondorioetatik harago, biztanleria osoarentzat dituen ondorioetan pentsatu beharra dago. Hau da, lan-errentek BPGd-an partaidetza handiago izango balute, soldatak handiagoak izango liriateke; horrek, halaber, kontsumo-maila altuagoak eragingo lituzke eta, horrela, ekonomiaren hazkundera eta enplegua sustatuko liriateke. Ondorio horixe ateratzen du, hain zuzen ere, Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziak (UNCTADek), irailean aurkeztutako txostenean.

2

Espainiako gobernuak elektrizitate enpresen alde eta biztanle kontsumitzaileen kaltetan ari da

Espainiako Gobernuak argiaren prezioa %4,8 igotzeko baimena eman du. Gaur egungo krisi-egoeran, non langabezia-mailak oso altuak diren, eta gizarte-laguntzetarako aurrekontua amaitzean jendea laguntza barik uzten delarik, gehikuntza horrek hil amaierara heltzeko arazo larriak dituzten pertsona eta familia ugarietara egiten die bereziki kalte.

Oraingoa urtarrileko %2,6ko igoerari eta BEZean egindako %2ko igoerari gehituta, 2010ean fakturan izan den gehikuntza %10ekoa da. Eraso larria egiten zaio horrela jendearen poltsikoari, batez ere gizarte-egoera okerreanean eta minberen dauden kolektiboen poltsikoei.

Iberdrolak, bestalde, aurtengo lehen seihilekoan, 1.467,2 milioi euroko etekin garbia eskuratu du. Horren arabera, eguneko, 8 milioi euro (1.331 milioi pezeta) irabazten ditu. Hala ere, elektrizitate-enpresek prezioa igotzea galgatzten dute, eta gobernuak onartu egiten die, beraien esanetara dagoela erakutsiz.

Krisiari aurre egitekotan, soldatak eta aurrekontua murrizteko neurriak hartu eta 2011n pentsioak izoztea erabaki duen gobernu berorrek orain, merkatu-arrazoak argudiatuz, prezio-igoera kaltegarri hori baimentzeari onartu ezinezko deritzogu.